

SENDAGAIEN  
ZENTZUZKO  
ERABILERA

Edizioa: **Farmamundi 2020.**

Diseinua eta maketazioa: **Labox Marketing y Comunicación.**

Lan hau **Creative Commons** lizentziarekin dago:



**CC BY-NC-SA** (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin)

Lizentzia honek beste batzuei bide ematen die haren obran oinarri hartuz nahasi, egokitu eta eraikitzeko, helburuez-komertzialetarako, betiere egile-tza aitortuta eta sortzen diren lan berriak baldintza bereko lizentzia baten pean jarrita.

Finantzatzaileak:



# AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2.	BALIABIDEAK	6
3.	TESTUINGURU APUR BAT	8
4.	IKASGELAKO JARDUERAK	14
	4.1 DESKRIBAPENA	
	1. Jarduera: QUIZ CREASALUD JOLASA	
	2. Jarduera: EZAGUERA ERAIKIZ	
	3. Jarduera: OSOKO EZTABAIDA	
	4. Jarduera: AZKEN ONDORIOA	
5.	BIBLIOGRAFIA	24

# 1. SARRERA

Sendagaien zentzuzko erabileraren inguruan ikasleekin gogoeta eta ikaskuntzako prozesu kolektibo bat egitera bideratutako zenbait orientabide dituzue honako unitate tematiko honetan.

Unitatearen helburua, beraz, ikasleei sendagaien erabileraren inguruan gogoeta bat eginaraztea da, ikuspegi hori bere osotasunean landuz eta abiapuntutzat haien bizipenak hartuta; jolasaren bidez egingo dute gogoeta.

## NOLA EGINGO DUGU?

Ezagueraren eraikuntza kolektiborako metodologia bat proposatu dugu horretarako, parte-hatzean, elkarriketan eta interakzioan oinarritzen dena; hezkuntza-proposamena jolas-izae-rako osagai baten bidez ere antolatuko da.

Quiz CreaSalud galde-erantzunen jolasa proposatzen dizugu, sendagaien zentzuzko erabileraz gogoeta egiteko tresna gisa. Jolastu ondoren, fitxekin lan egingo du talde bakoitzak: zenbait esaldi datoz fitxa horietan, sendagaien zentzuzko erabilerari buruzkoak, eta, horien arabera, jarrera bat edo bestea hartu beharko dute, eta gogoeta egingo dute, ezaguera kolektibo bat osatzeko denen artean. Gogoeta-prozesua amaitu ostean, beren gogoetak eta ondorioak bateratuko dituzte ikasgelako gainerako kideekin, eta tarte bat zabalduko da, talde guztiei parte hartzeko tokia egiteko; horrela, beren ekarpenak egin ahal izango dituzte, eta gainerako ikaskideek landu dituzten gai-multzoak eztabaidatuko dituzte.

**Gida honen hasieran, zenbait eduki teoriko dituzu, ikasgelan jarduerak egiteko eta ikasleen arteko eztabaidak sustatzeko lagungarri izango zaizkizunak.**

Horrez gain, gogoeta hori ekintza baten bidez gauzatzera bultzatu nahi zaituztegu, ikastetxean, auzoan edo herrian eragina izango duen ikus-entzunezko kanpaina baten bidez. Horretarako, CreaSalud Maletatxoan txertatu diren Ekintza Proposamenetako bat gelan egitea proposatzen dizugu.

## ZER ZEREGIN DUZU ZUK PROZESU HONETAN?

Irakasle zaren aldetik, ikaskuntza-prozesua erraztea izango da zure zeregina; horretarako, ikasleek ikasgelan parte hartuz eta gogoetaren bidez lan egin dezaten saiatuko zara, pertsonen arteko errespetuan eta berdintasunezko harremanetan oinarritua.

# 2. BALIABIDEAK

Proposamen didaktiko honek ikasgelan lantzeko metodologia bat proposatzen du berariaz. Horregatik, unitate tematiko hau garatzeko behar izango dituzun oinarrizko baliabideak dituzu ondoren.


## BALIABIDE PEDAGOGIKOAK

- > **Gida tematikoa:** gida honetan, euskarri gisa erabil dezakezun eduki tematikoa eta ikasgelan garatzeko jarduerak deskribatzen dira pausoz pauso.
- > **Proposatutako jarduerarako materialak:** material bereziak behar dira zenbait jarduerarako, eta CreaSalud Maletatxoan datoz material horiek, formatu fisikoan nahiz birtualean; ondoren adierazi dizkizugu. Jarduera bakoitzean, zer material behar den adierazten da.
  - > **4. unitate tematikoa, 1.1.-etik 1.4.-ra bitarteko baliabideak:** lau taldeetako bakoitzerako galderak dituzten txartelak.
  - > **4. unitate tematikoa, 2.1.-etik 2.4.-ra bitarteko baliabideak:** lau taldeetako bakoitzerako erantzunen txartelak.
  - > **4. unitate tematikoa, 3.1.-etik 3.4.-ra bitarteko baliabideak:** galderen eta erantzunen txartelei dagozkien gogoeta-fitxak.
- > **Gida PowerPointen:** ikasgelako jarduerak dinamizatzeko, zure esku jarri dugu pausoz pauso azaltzen dituen aurkezpen digital bat.

## BALIABIDE OSAGARRIAK

Gainera, honako baliabide hauek beharko dituzu ikastetxean:

- > Arbela eta arbelerako errotuladoreak.
- > Ekipamendu informatikoa, finkoa nahiz eramangarria.
- > Irudi-proiektagailua.
- > Proiekzio-pantaila.



# 3. TESTUINGURU APUR BAT

## SENDAGAIA, FUNTSEZKO ONDARE SOZIAL

Sendagaiak, beste hainbat produktu farmazeutiko bezala, oinarri-oinarrizkoak dira medikuntzarako, eta, beraz, baita pertsonen osasunerako ere. Horregatik, garrantzi handia du produktu horien segurtasuna, eraginkortasuna eta kalitatea bermatzeak. Horrez gain, zentzuz agindu eta erabiltzeak duen garrantzia azpimarratu behar da.

Sendagai guztien artean, badira batzuk funtsezkoak direnak, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) definitutakoak: "Biztanleriaren lehentasunezko osasun-beharrei erantzuten dietenak dira, une oro eskura izan behar ditugunak, kopuru egokitan, osasun-sistemetan beharrezkoak diren forma farmazeutikoetan, beharrezko kalitatearekin eta informazioarekin, eta pertsona eta komunitateentzat arrazoizko prezioetan."

Funtsezko sendagaien lehen zerrenda 1977an egin zuen OMEk, eta 208 sendagai hartzen zituen barnean. Bi urtean behin eguneratzen da zerrenda hori, eta, gaur egun, 500 sendagai biltzen ditu ia, askotariko gaixotasunei aurre egin ahal izateko, hala nola paludismoari eta GIB/hiesari: edo minbiziari, diabetesari eta horrelako gaixotasun kronikoei. Oinarrizko osasun-sistema baterako beharrezkoak diren gutxieneko sendagaiak zehazten ditu zerrendak, eta lehentasuna duten nahasmenduetarako sendagai eraginkor eta seguruenak eta kostu eraginkorrekoak biltzen ditu. Lehentasunezko nahasmenduak osasun publikoaren ikuspegitik gaur egun eta etorkizunari begira duten garrantziaren arabera aukeratzen dira, eta kontuan hartzen da tratamendu segurua eta kostu eraginkorra aplikatzeko aukera ere. Hemen duzu 2019ko zerrenda eguneratua: [https://www.who.int/medicines/publications/08\\_SPANISH\\_FINAL\\_EML15.pdf](https://www.who.int/medicines/publications/08_SPANISH_FINAL_EML15.pdf).



## ZENTZUZKO ERABILERA

Honela definitzen du OMEk sendagaien zentzuzko erabilera: “Pazienteek beren beharren arabera sendagai egokiak jasotzea, gizabanako bakoitzaren eskakizunei dagozkien dosietan, beharrezkoa den denboraldian eta gizabanakoarentzat nahiz komunitatearentzat ahalik eta kostu txikienarekin.”

Definizio horretatik atera dezakegu funtsezko sendagaiak biztanleen eskura egon behar dutela; eta, horrez gain, ezinbestekoa dela informazioa. Nahitaezkoa da sendagaiak ezagutzea, jakitea zein diren tratamendu egokiak, zer dositan eta zer iraupen izan behar duten.

OMEk, besteak beste, sendagaien erabilera ez egokiarekin lotutako ohiko adibide batzuk identifikatu ditu:

- > Pazienteko sendagai gehiegi erabiltzea (polifarmazia).
- > Mikrobioen aurkako sendagaiak modu desegokian erabiltzea, dosi desegokietan askotan, infekzio ez-bakterianoetarako.
- > Injekzioen gehiegizko erabilera, ahotiko sendagaiak egokiagoak liratekeenean.
- > Jarraibide klinikoekin bat ez datozen errezetak ematea.
- > Automedikazio desegokia, askotan mediku-errezeta behar dutenean.

OMEk ohartarazi du sendagaiak eskura ez izateak edo egoki ez emateak heriotza-tasa handiak eragin ditzakeela. Sendagai gehiegi erabiltzeak, baliabideak alferrik erabiltzeaz gain, pertsonaren osasunari ere zuzenean eragin diezaioke, adibidez, aurkako erreakzioak sortuz; sendagaiak eraginkortasuna galtzea ere eragin dezakeela ahaztu gabe. Bestalde, sendagaiak modu desegokian botatzeak eragin larriak izan ditzake ingurumenean.

Ildo horretatik, mikrobioen aurkako sendagaien gehiegizko erabileraz gero eta kezka handiagoa ari da sortzen nazioartean, mikrobioen erresistentzia handitzea baitakar horrek. Honetaz ari gara, zehazki: “mikroorganismoek (hala nola bakterioek, birusek eta bizkarroi batzuek) duten gaitasuna, mikrobioen aurkako sendabideen eragina (antibiotikoena, antibiralena eta malararen aurkakoena) eragozteko” (OME 2017). Horren ondorioz, horrelako gaixotasunei aurre



## SENDAGAIEN DONAZIO EGOKIA

Zenbait egoerak, hala nola hondamendi humanitarioek edo ingurumen-hondamendiek, elkar-tasuna pizten dute herritarrengan, eta askotariko ekitaldi edo kanpainetan parte hartu ohi dute; esate baterako, sendagaiak bilduz eta emanaz.

Askotan, ez dira egokiak donazio horiek, eta oso ondorio negatiboak ekar diezazkiokete pertso-nen osasunari. Horrelako sendagaiak biltzen baitira maiz:

- > Pazienteei agindutako sendagaien hondarrak edo produkzioan sobera gelditutakoak, zirkuitu farmazeutikokoak ez direnak eta, beraz, segurtasuna eta kalitatea bermatu gabe dutenak.
- > Helmugako lekuan erabilera onartua ez duten sendagaiak, edota biztanleriaren beharrei erantzuten ez dietenak.
- > Iraungitze-data donazio-egunetik oso gertu dutenak, etab.

Sendagaiak modu desegoki batean bildu eta emateak mesede baino kalte handiagoa egin diezaioke hartzaileari.

Horrez gain, jada balio ez diguten sendagaiak ongi tratatuz botatzen direla bermatu behar dugu, ingurumenari kalterik eragin gabe. Kontuan hartu behar dugu SIGRE Puntua ez dela sendagaiak beste batzuei emateko puntua; aitzitik, sendagaiak ongi bota eta desegin ditzaten uzte dira horietan.

Sendagaiak egokiro bildu eta emateko interesa baduzu eta gai horretan sakondu nahi baduzu, Farmamundiren Sendagaien donazio eta mikrodonazioen gida gomendatu nahi dizugu<sup>1</sup>.

1- <https://farmaceuticosmundi.org/wp-content/uploads/2015/12/Guia-Donaciones-Farmamundi-2019.pdf>

## IIINFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA PRESKRIPZIOA

Sendagaiez hitz egiterakoan, informazioa lehenetsu gaitz bihurtzen da, eta ezinbestekoa da arduraz jokatzeko, informazioa eta sendagaiak zer bidetatik jasoko ditugun aukeratzeko; izan ere, sendagaiak osasunaren arloko profesionalak agindutakoak izan behar dute beti, haiek gainbegiratu behar dituzte, eta haien balioespena behar dugu.

Sare sozialek espazio berri bat zabaltzen diote sendagaien erabilerari, kontsumo-ondasun bat gehiago bezala hartuta. Sare horietan, zenbait sendagai (antibiotikoak, adibidez) hartu eta erabiltzea gomendatzen duten profilak hauteman dira, profesionalak ez dagozkienak; edota, horietako batzuek erabilera batzuetara bideratzen dituzte zenbait sendagai, nahiz eta ez diren horretarako diseinatu ez eta testatu ere; eta, noski, askotariko arazoak eragin ditzake horrek.

Informazioaren eta publizitatearen aroan, ohikoa da Internet bidez sendagaien eskaintzak jasotzea, baimenik gabe askotan. Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) ohartarazi du sendagaiek zuzen-zuzenean eragiten diotela gure osasunari, eta, horregatik, ezinbestekoa da sendagaien kalitatea, segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzea. Beraz, osasun-agintariek ematen duten informazioari erreparatzea gomendatzen da, eta osasunaren arloko profesionalen jardunbidean konfiantza izatea.

AEMPS erakundeak dio sendagaiekin lotuta gaur egun dugun arazorik nagusienetakoa Internet bidez dabilzan sendagaien faltsifikazioa dela, edota eskatzen diren kalitate-estandarrak betetzen ez dituzten sendagaiak, arazo izan baitaitezke osasun publikorako.

Sendagaien zentzuzko erabilera egiteko, kontuan hartu behar dira esku hartzen duten eragile guztiak: industria farmazeutikoa, osasunaren esparruko profesionalak (batez ere, sendagaiak agindu eta banatzearekin lotuta daudenak), botere publikoak (besteak beste, eraginkortasun eta informazioaren bermatzaileak) eta herritarrak.

Informazio gehiago behar baduzu, uztailaren 26ko 29/2006 Legeak arautzen ditu sendagaien eta osasun-produktuen bermeak eta zentzuzko erabilera<sup>2</sup>.

2- <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2006-13554>



## **4. IKASGELAKO JARDUERAK**



## 4.1 DESKRIBAPENA

Jarduera honen helburua sendagaien zentzuzko erabileraren inguruan gogoeta kolektibo bat eginaraztea da, ikasleen parte-hartzea bultzatuz eta jolasaren bidez; horretarako, hainbat jarduera proposatu dira:

- 1. Jolasa:** Quiz CreaSalud galde-erantzunen jolasa, sendagaien zentzuzko erabilerari buruzko kontzeptuak jolasaren bidez lantzen hasteko.
- 2. Taldeko gogoeta:** sendagaien zentzuzko erabilerari buruzko baieztapenak dituzten fitxa batzuk emango zaizkie taldeei, horiei buruz gogoeta egin eta eztabaidatu dezaten.
- 3. Sozializazio kolektiboa:** talde bakoitzak sendagaien zentzuzko erabilerarekin lotutako alderdi desberdinak landuko dituzenez, une egokia da honako hau egin dituzten gogoetak bateratzeko eta beste taldeen eztabaidetan parte hartzeko.
- 4. Amaierako gogoeta:** amaitzeko, jarduera honetan landu diren kontzeptu guztiak jorratuko dituen gogoeta bat proposatzen da.

Jarduerak taldeka egingo dira, lau talderekin gehienez, eta, eztabaidari eman nahi diozun sakontasunaren edo ikasleen parte-hartze eta interesaren arabera, saio batean edo bitan egin daitezke.

Gai hau bere osotasunean lantzeko, honako jarduera hauek pausoz pauso egitea gomendatzen dizuegu.

## 1 JARDUERA: QUIZ CREASALUD JOLASA



**Iraupena:**  
10 minutu



### CreaSalud Maletatxoko baliabideak:

Galderen txartelak (4. unitate tematikoa, 1.1.-etik 1.4.-ra bitarteko baliabideak) eta erantzunen txartelak (4. unitatea, 2.1.-etik 2.4.-ra bitarteko baliabideak)

Ikasleen gogoetaren abiapuntua da jarduera hau, eta, galde-erantzunetan datzan jolas baten bidez, sendagaien zentzuzko erabilerarekin lotutako zenbait kontzeptu aurkezten zaizkie.

### PAUSOAK

- 1 Osatu taldeak ikasleen artean; lau talde gehienez.
- 2 Banatu galderen txartel bat talde bakoitzari (4. UNITATE TEMATIKOA, 1.1.-ETIK 1.4.-RA BITARTEKO BALIABIDEAK). Txartel bat baino gehiago eman diezazkiekezu taldeei, lau talde baino gutxiago badituzu.
- 3 Adierazi ikasleei sendagaiei eta horien erabilerari buruzko zenbait galdera dituztela, eta erantzuten ahalegindu behar dutela. Nahi baduzu, erantzunak beren gailu elektronikoak erabiliz bilatzen utz diezaziekezu.
- 4 Galderei erantzuten dietenean, banatu talde bakoitzari dagokion erantzunen fitxa (4. UNITATE TEMATIKOA, 2.1.-ETIK 2.4.-RA BITARTEKO BALIABIDEAK), beraiek emandako erantzunekin alderatzeko.



## GALDERAK

### SENDAGAIEN ERABILERA

1. Nork aurkitu zituen antibiotikoak? Zer urtetan?
2. Bakterioak suntsitu edo kontrolatzeko indarra dute antibiotikoek. Nola deritzo bakterioek antibiotikoen eragin horri aurre egiteko garatzen duten gaitasunari?
3. Bakterio, birus, parasito eta onddoen kontra egiteko balio al dute antibiotikoek?
4. Sendagaiak aurkeztuko bi modu esango zenituzke?
5. Zer esan nahi du EFP siglak?


### FUNTSEZKO SENDAGAIK

1. Zer dira funtsezko sendagaiak?
2. Zer erakundek xedatzen du zerrenda horretan zer sendagai sartuko diren?
3. Zein dira horiek aukeratzeko irizpideak?
4. Nola deritzo gure organismoan eragiteko gai den substantziari, xede diagnostiko edo terapeutikoetarako nahiz prebentziorako erabiltzen denari?
5. Zertarako erabiltzen dira sendagaiak?

### SENDAGAIEN DONAZIO EGOKIA

1. Non adierazten da nola gorde behar diren sendagaiak?
2. Esango al dizkidazu sendagaien propietateak edo eraginkortasuna alda dezaten hiru faktore gutxienez?
3. Zer da DCI sendagai batean?
4. Nola deritzo botiketan sendagaiak bildu eta ontziratzeke puntuari?
5. Zer erakundek argitaratu zituen sendagaien donaziorako jarraibideak?

### INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

1. Nola deritzo sendagaiekin batera etorri ohi den dokumentuari, sendagaiari buruzko informazio guztia ematen duenari?
2. Nola deritzo sendagaiak garatzeko prozesu esperimental eta klinikoari, erregistroari, merkaturatzeari, promozioari, banaketari, preskripzioari, banaketari eta azken erabilerari?
3. Zer san nahi du  sinboloak sendagaietan?
4. Zer hiru irizpide bete behar dira antibiotikoak hartzean, beren funtzioa bete dezaten?
5. Zer esan nahi du AEMPS siglak? Zer egiten du?

## ERANTZUNAK

### SENDAGAIEN ERABILERA

1. Alexander Flemingek, 1928an, penizilina aurkitu zuenean.
2. Bakterioen erresistentzia.
3. Antibiotikoei bakterioen kontra balio dute soilik.
4. Kapsulak, konprimatuak, xarabeak, kremak, injektatzeko soluzioak, aerosolak, partxeak...
5. Espezialitate Farmazeutiko Publizitarioak. Jendeari begira sendagai horiei buruzko publizitatea egin daitekeela adierazten du..

### FUNTSEZKO SENDAGAIK

1. Biztanleek osasunaren esparruan dituzten lehentasunezko beharrak asetzen dituztenak.
2. OMEk.
3. Gaixotasunen prebalentzia, segurtasuna, eraginkortasuna eta kostua.
4. Farmakoa edo printzipio aktiboa.
5. Prebenitzeko, arintzeko, kontrolatzeko, diagnostikatzeko eta sendatzeko..

### SENDAGAIEN DONAZIO EGOKIA

1. Sendagaien ontzi guztietan agertzen da nola gorde behar diren, tenperatura eta ingurumen-baldintzak barne.
2. Argia, beroa, hezetasuna, kutsadura eta izurriak.
3. Nazioarteko izendapen bateratua da (gaztelaniazko sigla); izen generikoari egiten dio erreferentzia.
4. SIGRE Puntua.
5. OMEk.

### INFORMAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

1. Erabilera-orria.
2. Sendagaiaren katea.
3. Sendagilearen aginduz hartu beharrekoa dela.
4. Adierazitako kopurutan, egunean zehar hainbat aldiz, eta agindutako denboraldian.
5. Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia.

## 2 JARDUERA: EZAGUERA ERAIKIZ



### Iraupena:

20/45 minutu (debateari eman nahi diozun sakontasunaren eta ikasleen interese eta parte-hartzearen arabera)




### CreaSalud Maletatzoko baliabideak:

Gogotarako fitxak (4. unitate tematikoa, 3.1.-etik 3.4.-ra bitarteko baliabideak)

Jarduera honen helburua talde bakoitzak sendagaien zentzuzko erabileraren inguruan ezaguera kolektiboa eraikitzea da, taldeko eztabaidaz edo debateaz baliatuta.

### PAUSOAK

- 1 Banatu talde bakoitzari baieztapenak biltzen dituen fitxa (4. UNITATE TEMATI-KOA, 3.1.-etik 3.4.-ra bitarteko BALIABIDEAK), egin duzuen Quiz jolasari dagokiona. Ziurtatu talde bakoitzari dagokiona ematen diozula.
- 2 Esan talde bakoitzari eman zaion fitxako baieztapenak irakurri behar dituela, eta bat datozen edo ez kontuan hartuta, jarrera bat edo bestea hartu behar dutela, arrazoiak emanez.
- 3 Eskatu talde bakoitzari baieztapenen inguruan eztabaidatzeko, taldean sortzen diren ideia eta gogoeten arabera.
- 4 Hurbildu talde bakoitzarengana, beren gogoeta sustatzeko, debatea pizteko eta eduki berriak emateko, egoki iruditzen bazaizu.



Fitxetan datozen baieztapenek ez dute zertan egia izan. Eztabaida pizteko asmoz egin dira, eta polemikoak izan daitezke zenbait kasutan.

## OHARRA

Jarraian, talde bakoitzean banatuko dituzun esaldiak aurkeztuko dizkizugu:

### 1. TALDEA: SENDAGAIEN ZENTZUZKO ERABILERA

- > Sintoma berak badituz, sobera gelditutako sendagaiak erabiltzen dituz, ez baituz osasun publikoa kolapsatzen horrela.
- > Jendeak bere kabuz hartzen dituz sendagaiak, ez direlako saltzen sendagileak agindutako dosi zehatzetan.
- > Infekzio bat dudala uste dudanean, antibiotikoak hartzen dituz, baina arduraz jokatu behar dut, eta, hobeto sentitzen naizenean, hartzeari uzten diot.
- > Ez zaizkit gustatzen gai kimikoetan oinarritutako sendagaiak; produktu natural batzuekin, emaitza bera lor daiteke.
- > Sendagai batek on egin badituz, inguruko beste norbaiti gomendatzen diot.
- > Ez dut uste gaizki nagoenean antibiotikoak hartzeagatik inolako arriskurik dudarik; horrela, "zomorro" bat badut ere, tratamendu egokia bermatzen dut.

### 2. TALDEA: FUNTSEZKO SENDAGAIAK

- > Pertsona batzuek sendagaiak ez dituzte eskura, gobernuei ez zaielako interesatzen.
- > Funtsezko sendagaiek doakoak izan behar lukete baliabide ekonomiko gutxien dituzten pertsonentzat.
- > Beti dago besteen beharren bizkar aberasten den norbait, eta horren adibide dira, argi eta garbi, sendagaiak.
- > Normala da soilik herrialde aberatsetako gaixotasunak ikertzea; azkenean, horiek dira osasunean gehien inbertitzen dutenak.
- > Gaixotasun garrantzitsu guztiek dute gaur egun tratamendua.
- > Uste dut garrantzitsua dela jendeak sendagaiak eskura izatea, nahiz eta ez izan kalitate onenekoak. Hobe izango da zerbait izatea ezer ez izatea baino.

### 3. TALDEA: DONAZIO EGOKIA

- > Baliabide ekonomiko gutxiagoko herrialde batera joaten naizenean, uste dut garrantzitsua dela hango jendearentzat nire botika-kutxa han uztea; azken finean, horrelako sendagaiak erosteko erraztasun handiagoak ditut nik.
- > Gorde egin ohi ditut sobera gelditzen zaizkidan sendagaiak, botatzea eta gerora berriro erosi beharra izatea dirua alferrik gastatzea iruditzen baitzait.
- > Erabat bukatutakoan, sendagaiak ohiko edukiontzietan utz daitezke; plastikoa eta kartoia dira, besterik ez.
- > Herri eta biztanle talde batzuk egoera zaurgarrian daude, eta gure donazioen mende daude, sendagaiak eskuratzeari dagokionez.
- > Funtsezkoa da edozein motatako sendagaien donazioak egitea baliabide gutxieneko biztanleei, eta, zenbat eta gehiago, hobe. "Hobe da sobera izan, falta izan baino".
- > Larrialdietan, iraungitze-data gertu duten sendagaiak eman daitezke, berehala erabiliko direnez.

### 4. TALDEA: INFORMAZIOA

- > Normala da jendeak txertorik ez hartzea edo seme-alabei txertorik jarri nahi ez izatea; informazioa falta da, eta ez dira kontuan hartzen kontrako efektuak.
- > Estetikako eta kosmetikako produktuetan, sare sozialetako gomendioei jarraitzen diet.
- > Beti irakurtzen ditut agintzen dizkidaten sendagaien erabilera-orriak; uste dut garrantzitsua dela, eta ez dut ulertzen jendeak halakorik ez egitea.
- > Gaur egun, dena eros daiteke Internetez; ideia zoragarria iruditzen zait sendagaiak ere horrela erosteko aukera ematea.
- > Publizitateak erabili egiten gaitu, unean-unean nahi duten sendagaiak eros ditzagun.
- > Pertsona guztiok dugu informazioa eta prestakuntza sendagaien inguruan.

### 3 JARDUERA: OSOKO EZTABAIDA



#### Iraupena:

20/40 minutu (debateari eman nahi diozun sakontasunaren eta ikasleen interes eta parte-hartzearen arabera)

Talde bakoitzak egindako gogoetak eta talde horietan sortu diren eztabaidak bateratzea da jarduera honen helburua; horrez gain, aukera ederra eskaintzen die gainerako taldeei guztien arteko eztabaidan parte hartzeko eta ezaguera eraikitzeko, ikasle guztien parte-hartzea bultzatuz. Hona hemen zenbait pauso, egindakoa bateratzeko; horrez gain, zenbait galdera ere proposatzen dizkizuegu, debatea dinamizatzen laguntzeko.

#### PAUSOAK

- 1 Eskatu talde bakoitzari gogoetagai izan dituzten baieztapenak azaltzeko.
  - Zerk harritu ditu gehien? Zergatik? Zein esaldi dira beraien ustez garrantzitsuenak gogoetarako?
- 2 Eskatu talde barruan sortu den eztabaida azaltzeko guztiei, zer jarrera agertu diren eta zer ondorio atera dituzten adieraziz. Baieztapen bakoitzaren aurrean hartutako jarreraren barnean bazegoen adostasunik taldearen barnean? Baieztapenetako batzuekin identifikatuta sentitu dira ikasleak?
- 3 Dinamizatu gainerako taldeen parte-hartzea, gainerako ikasleek debate guztietan parte hartzeko aukera izan dezaten.
- 4 Eskatu taldeetan egindako lanaren ondorio edo laburpenen bat.
  - Laburtu dezakete beren gogoeta hitz edo esaldi batean? Garrantzitsua da, beraien ustez, banaka nahiz taldean gogoeta bat egitea sendagaien zentzuzko erabileraren inguruan?

Debatea egiteko denbora gehiago baduzu, talde bakoitzak bere gogoeta luzeago azaldu dezake, eta jendea sendagaien zentzuzko erabileraz sentiberatzeko aukerak proposa ditzake.

## 4 JARDUERA: AZKEN ONDORIOA



**Iraupena:**  
5 minutu


Jarduera honen helburua lan-saioa ondorio global batekin amaitzea da; ikasgelako jardueretan landutakoa bilduko luke ondorio horrek. Horretarako, azaldu pertsonen osasunarekin eta sendagaien erabilera egokiarekin lotutako azken ondorio bat, eta azpimarratu gizabanakoren eta kolektiboen jarreraren eta jokabideen garrantzia.

- Hauxe izan daiteke "ondorio-eredu" bat: "Sendagaiak segurtasunez, eraginkortasunez eta irizpide ekonomikoak kontuan hartuta erabili behar dira. Erabilera egokia bermatzeko, bat etorri behar dute banakako eta taldeko jokabideek, osasun-arloko profesionalen jardunbideak nahiz osasun-politikek. Gutariko bakoitzaren jokabide arduratsuak gure osasuna eta gure ingurukoena babestuko du, sendagaiak eta osasun-produktuak arduraz eta zentzuz erabiliz. Ezinbestekoa da egiazkoa eta egokia den informazioa izatea eta ondo prestatzea, iturri fidagarrietara eta osasun-arloko autoritateetara joz eta sendagaiak agintzen zaizkigunetik kontsumitu arte egoki jokatzuz. Horrez gain, ahalegina egin behar dugu sendagai egokiak emateko edota, sendagaiak botatzen ditugunean, zuzen botatzeko, ingurumenari kalterik egin ez diezaiozun. Ematen zaizkigun jarraibideak betetzeko ardura dugu, gure osasuna ez ezik ingurukoena ere bermatuko baitugu horrela".

Interesgarria iruditzen bazaizu, eduki teorikoak sakonago lan ditzakezu ikasleekin, edo, beren gogoetak osatzeko, ikasleen esku jar ditzakezu.

# 5. BIBLIOGRAFIA

- > Osasunaren Mundu Erakundea, Osasunerako Nazioarteko Ekintza (2008): Medir precios, disponibilidad, asequibilidad y componentes de los precios de los medicamentos.
- > Osasunaren Mundu Erakundea (2013): Detrás de la lista de medicamentos esenciales.
- > Osasunaren Mundu Erakundea (2018): Resistencia a los antimicrobianos.
- > Antibiotikoekiko erresistentziari buruz OMEren programa: <https://www.who.int/antimicrobial-resistance/es/>
- > Farmamundi (2009): Esenciales para la vida.
- > Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentzia: <https://www.aemps.gob.es/>









CREASALUD